

Zezenak eta ardiak

Joxean Agirre

Banvillek “Infinituak” eleberrian kontatzen duenez, 1930era arte artalde batek jaten zituen New Yorkeko Central Park-eko larreak, harik eta Robert Moses urbanistak ardi horiek Prospect Park-era eramateko agindu zuen arte. Ardiak gauez biltzeko erabiltzen zuten eskortan, “Tavern on the Green” zabaldu zuten.

Ardiak hirietako parkeetan larrean erabiltzea nahikoa ohitura kosmopolita dela esan daiteke, beraz, eta ez Donostiara Bilduk ekarritakoa. Horregatik harritu nintzen orain egun batzuk ETB2 kateko gaueko berriak entzuten ari nintzela Marisol Garmendia PSEko zinegotziak Ametzagañako parketik ardiak kenduko zituztela iragarri zuenean. Kamerari begira jarri eta «hesirik gabeko parke bat nahi dugu, pertsonak eta beren maskotek bertan libre jolas egin dezaten», esan zuen.

«Emakume honek obsesioaren bat dauka animaliekin», pentsatu nuen nirekiko, as-

tebete lehenago prentsaren aurrean hizketan ari zela Aste Nagusiko egitarauaz galdegin ziotelarik, ekitaldien zerrenda egina zegoela esan baitzuen, baina aldaketa batzuk sartuko zituztela eta bat garrantzizkoa, zezenak Illunbera itzuliko zirela. Estatu espainiarreko hiririk handienetan osatu diren udalbatza berriak auditoriak agindu, zorrak ikertu, soldatak jaitsi, etxegabetzeak gelditu, genero berdintasuna edo langabezia gutxitzeko planak aztertzen hasi diren honetan, Donostiakoa zezenekin eta ardiekin kezkatuak ikusten dut.

Ez gara zezenketari buruz hitz egiten hasiko. Iraungitze data aspaldi igaro zitzaion ikuskizuna iruditzen zait, absolutismoaren garaiak eta Francoren festa nazionala ekartzen baititu gogora. Ametzagañako ardien etorkizunak ere ez nau kezkatzen (parkearen mantenuan dirua aurrezteko jarri zituztela uste dut). Nik ardiekin izan dudana esperientzia laburra baina aberatsa izan da, bi aldiz joan bainaiz Eli Arrillaga-

ren artaldea Olaberriatik Urbiara eramaten laguntzera. Ordu batzuetako bidearen buruan, mendi maratoiko atletek ere eskuak belaunetan dituztela igotzen dituzten azken aldapa ia bertikaletara iristean, adineko ardiek etsi egiten dute. Alferrik da orroaz hastea, onez onean hitz egin behar zaie eta, profeta batek jarraitzaileei zerua agintzen dien moduan, esplikatzen nien nik azken ahalegintxo bat aski zutela zeruko larre berdeak, “Urbiako Edena”, ezagutzeko; eta, gezurra badirudi ere, uste dut ulertu egiten zidatela.

Nik ez daukat ezer Ametzagañan libre eta hesirik gabe jolas egin nahi duten maskoten kontra. Baina, esan didatenez, zakur haztegieta eginahalak egiten ari dira ahalik eta zakur arraza itsusienak lortzeko. Steckel arrazako zakurrek hankadun sugeak dirudite, bulldog arrazakoek ito beharrean hartzen dute arnasa... badaude ilerik gabeko zakurrak ere! Ez konparatu. Nik ez dut ardi itsusirik ezagutzen. •

Stonewall

Saioa Iraola

Aske naiz izan nahi dudana izateko, aske naiz gustuko dudana erabakitzeke, aske naiz gaur zeinekin eta nola harremandu nahi dudan erabakitzeke, askeak gara zeinekin goxatu, oheratu, larrua jo, muxukatu eta elkartu erabakitzeke, aldaketak eta krisiak oinarri dituen XXI. mende honetan. Berdintasunaren jendartearen tranpan erorazten gaituzte, desio dugun hori guk erabakia, naturala, berezkoa dela arbuiatuz. Feministok, aldiz, «gora gorputz eta desio askeak» oihukatzen, aldarrikatzen eta borrokatzen jarraitzen dugu. Oraindik ere, zernahi izan nahi dugun imajinatzeke, amesteko aukera askerik ba al dugu?

Baina zer da aske izatea? Nork ematen digu askatasuna eta nola jasotzen dugu galtzetako poltsikoan gurekin ongi loturik joan dadin? Askatasunak badu mugarik gure iruditegian, imajinario kolektiboan, bestelako bizi eta sexu praktikak dituzten erreferente bakan horietan, bizkar gainean daramagun motxilan, eraginik izan badielako bizi izandako, entzundako eta ikasitako guztiak gure hautuan. Asteburuan, gizonezko gorputzean jaiotako lagun bategen, esperientziaz bide emanez, kortsea, minigona eta ileorde luze beltzarana soinean jarri eta larunbateko egun-pasa aldarrikatzailean parte hartu zuen. Lehenengo aldiz festa gunean komunera joate-

ko ikara sentitu zuela esan zidan, lehenengo aldiz desio objektu sentitzen zela, ez zekiela hankak nola jarri, gurutzatu edo ez... eta galdegin zidan: «hau horrela al da eguneroko Saio?». Trabestitzearen esperientzia brutalak! Gazia bezain gozoa... Baina betiere ausarta.

Eraikitako horma zurrun eta arauak esperientziaz, hautu politikoaz, ausardiaz, plazerez leuntzen ditugu komunetako muxu, etxeko ohe eta kale kantoietan. Askatasuna egitate objektibo bat baino bide bat delako, *continium*-a, orain 46 urte Stonewall-en izandakoen, ekinean eta borrokan ari garenon eta izango direnen bide orria. •